

# Amari

Erbeste ontan, Ama Neskutza,  
Zure semeok gaude negafez,  
¡Atoz gugana, Donoki - poza,  
ta alai gartzatsu ¡ai! zure maitez!

Ludi gaiztoan  
gogo gaxoa  
Zugana nairik  
guk degu;  
Zure altzuan  
Ama gozoa  
maite - maiterik  
ar - zazu.

Erbeste ontan, Ama Neskutza!  
Zure semeok gaude negafez.  
¡Atoz gugana, Donoki - poza,  
ta alai gartzatsu ¡ai! zure maitez!

TENE.

Zenbaki onek atal barri bat daula  
ikuskezue, ene irakurliok: Uskuftz-  
iztija burutzat dauna. Bere egillia,  
Ufutia' tar Aba, Miren-Bijotz-Seme  
Belgundarija, jakitunen artian eza-  
guna da - ta, gauza jakingarriak  
esango dauskuz.

Boa olan aurrera geure euzkeria,  
jakintzaen toki eregijak be artzen.



Argontzirako gaimela dana, da bizke-  
rarako alafasuna.

Gaimela urifuten danian, *mutuba* iraun-  
gitzen da, lurun baltz-baltza jauřitien dau,  
argitzen ez daun argi gorizkea edatzen  
dau.

Alafasun apur bat baga, bizkerea be,  
onura bagerik dua, ta ituna ta auspezku-  
na bere urbilan edatzen dauz.

Alai gagozarian besteko onak iñoz ez  
gara.

Alafasuna baña ez da bañe santsua, ezta  
esakun bañegarriak eta gitxiago zirtuak...  
da *naretasun jaraitkoñ*.

Esakun onek asko diño, ta diñoña ondo.  
Eguraldija nare dagonian, ozkarbi egon  
oi da: eguna argijagua ixaten da; egutza  
ariñago, aztunari be gorantz eragiten dau-  
tsola dirudi. Lañoren bat edo beste agiri  
dagike, igarokoña da baña.

Jaunaren alaiz goxan edegi dan bijo-  
tzan beste ainbeste jazoten da.